

KANALAK

Gure proiektua zerbitzu bat da, beraz kanalik egotea ez litzateke beharrezkoa izango. Baina edukiontzia eramateko Sasieta enkargatuko zen hori egiteaz. Publizitatea egitea pentsatuta dugu, herrietatik kartelak eta udaletxean informazioa ematea pentsatu dugu eta galderarik badute telefono zenbaki bat jarriko genuke. Edukiontzia mantenuaz bai Sasieta eta bai udala ere arduratuko da. Hasieran kanpaina berezi batzuk egingo ditugu jendeak gure produktua erabilgarria dela ikusteko eta haiek ere gure proiektua martxan jartzeko. Sentsibilizazio kanpaina bat proposatu dugu, bertan jendea egoera larri honen inguruan (klima aldaketa eta birziklapenak gure munduari begira ekarri ditzakeen onurak) kontzientziatzea eta informatzea gure helburu nagusia da.

